



## 1/2020 ZIRKULARRA, URTARRILAREN 7KOA, ZERGA ADMINISTRAZIOKO ZUZENDARITZARENA, PFEZ-AREN ETA EZ-EGOILIARREN ERRENTAREN GAINEKO ZERGAREN KONTURAKO ORDAINKETEI BURUZKOA

Arabako Foru Aldundiak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Araudiaren (PFEZa)<sup>1</sup> aldaketak onartu ditu. Horien bidez, lan-etekinei aplikatu beharreko atxikipen-portzentajeak aldatzen dira, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren tarifa berrira egokitzeko, eta aldaketek ondorioak izango dituzte 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera. Bizkaiko Foru Aldundiak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak<sup>2</sup> 2018.urtearen amaieran aldatu zuten atxikipen-taula, 2019ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, Arabako Foru Aldundiak orain egindako aldaketen ildo beretik.

Ondoren, 2020an aplikatu beharreko PFEZaren konturako sarrera eta atxikipen guztien laburpen bat aurkezten da:

### 1. Lanaren etekinen gaineko atxikipenak

2020rako atxikipen-portzentajeen taula orokorra honako hau da:

Urteko etekina		Ondorengo kopurua						
Honetatik	Honetara	0	1	2	3	4	5	Gehiago
0,00	11.860,00	0	0	0	0	0	0	0
11.860,01	12.340,00	1	0	0	0	0	0	0
12.340,01	12.850,00	2	0	0	0	0	0	0
12.850,01	13.410,00	3	1	0	0	0	0	0
13.410,01	14.020,00	4	2	0	0	0	0	0
14.020,01	14.690,00	5	3	0	0	0	0	0
14.690,01	15.420,00	6	4	2	0	0	0	0
15.420,01	16.310,00	7	5	3	0	0	0	0
16.310,01	17.540,00	8	6	4	0	0	0	0
17.540,01	18.970,00	9	7	5	2	0	0	0
18.970,01	20.500,00	10	8	7	3	0	0	0
20.500,01	21.840,00	11	10	8	5	1	0	0
21.840,01	23.340,00	12	11	9	6	3	0	0
23.340,01	25.080,00	13	12	10	8	4	0	0
25.080,01	27.250,00	14	13	11	9	6	2	0
27.250,01	29.790,00	15	14	13	10	8	4	0
29.790,01	32.880,00	16	15	14	12	9	6	0
32.880,01	37.070,00	17	16	15	13	11	8	0
37.070,01	40.210,00	18	17	16	15	13	10	3
40.210,01	43.320,00	19	18	17	16	14	12	5

<sup>1</sup> Araba: DF 58/2019, abenduaren 27koa (BOTH A 1, 2020/01/03)

<sup>2</sup> Bizkaia: DF 170/2018, abenduaren 18koa (BOB 250, 2018/12/31)  
Gipuzkoa: DF 31/2018, abenduaren 27koa (BOG 250, 2018/12/31)

Urteko etekina		Ondorengo en kopurua						
Honetatik	Honetara	0	1	2	3	4	5	Gehiago
43.320,01	46.760,00	20	19	18	17	15	13	7
46.760,01	50.350,00	21	20	20	18	17	15	9
50.350,01	54.520,00	22	21	21	19	18	16	11
54.520,01	57.900,00	23	22	22	21	19	18	12
57.900,01	61.740,00	24	23	23	22	21	19	14
61.740,01	66.140,00	25	25	24	23	22	20	16
66.140,01	71.180,00	26	26	25	24	23	22	17
71.180,01	76.720,00	27	27	26	25	24	23	19
76.720,01	81.370,00	28	28	27	26	25	24	20
81.370,01	86.760,00	29	29	28	27	27	25	22
86.760,01	92.930,00	30	30	29	29	28	27	23
92.930,01	100.050,00	31	31	30	30	29	28	25
100.050,01	107.900,00	32	32	31	31	30	29	26
107.900,01	116.860,00	33	33	32	32	31	30	28
116.860,01	127.460,00	34	34	33	33	32	32	29
127.460,01	139.130,00	35	35	34	34	33	33	31
139.130,01	152.870,00	36	36	36	35	35	34	32
152.870,01	168.970,00	37	37	37	36	36	35	33
168.970,01	188.840,00	38	38	38	37	37	36	35
188.840,01	209.480,00	39	39	39	38	38	37	36
209.480,01	Hortik aurrera	40	40	40	39	39	39	37

Langile aktibo desgaituen kasuan, taula orokorra aplikatuz ateratzen den atxikipen-portzentajeari honako eskala honetan ageri diren puntuak kenduko zaizkio, langilea egoera hauetakoren batean badago:

- Desgaitasun-maila % 33koa edo handiago eta % 65koa baino txikiagoa duten langile aktibo desgaituak.
- Desgaitasun-maila % 33koa edo handiago eta % 65koa baino txikiagoa izanik, mugitzeko gaitasuna murriztuta duten langile aktibo desgaituak (araudian ezartzen den bezala).
- % 65koa edo handiago den desgaitasun-maila duten langile aktibo desgaituak.

Urteko etekina		Desgaitasun maila	
Honetatik	Honetara	a) atala	b) eta c) atalak
0,01	23.340,00	9	12
23.340,01	29.790,00	7	12
29.790,01	43.320,00	6	10
43.320,01	50.350,00	5	10
50.350,01	71.180,00	4	8
71.180,01	107.900,00	3	6
107.900,01	168.970,00	2	5
168.970,01	Hortik aurrera	1	3

## 2. Beste atxikipen batzuk

2019an aplikatzen ziren atxikipen-portzentaje berdinak mantentzen dira:

Kapital higigarriaren etekinak:	
Oro har,	% 19
Irudi-eskubideak	% 24
Jarduera ekonomikoen etekinak:	
Oro har,	% 15
Jardueraren hasiera berriko profesionalak (jarduera hasi den zergaldian eta hurrengo bietan)	% 7
Atxikipena aplikatu behar zaien ondare-irabaziak (adibidez, sari batzuk <sup>3</sup> )	% 19
Higiezinen errentamenduak eta azpierrentamenduak	% 19
Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga (EEZR):	
Oro har,	% 24
Europar Batasuneko egoiliarrak edo Europako Esparru Ekonomikokoak	% 19

Vitoria-Gasteizen, 2020ko urtarrilaren 7an.

**Zerga Administrazioako Zuzendaritza**

<sup>3</sup> Jarduera ekonomikoen etekintzat edo lan-etekintzat kalifikatutako sariei, etekin mota bakoitzari dagozkion araudia eta atxikipenak eta konturako diru-sarrerak aplikatuko zaizkio.